

590 Euskal Hizkuntza eta Literatura	Hizkuntza: Euskara	Proga egitearen data: 2021/06/20
--	------------------------------	--

Atea itxi da, klak, arratsaldeko bostak arte. Kotxea martxan jarri, ez dut pentsatu nahi ere zer gertatuko den kotxea erabat izorratzen denean, honezkero baditu bost urte, bai, Antxon jaio eta gero eresia. Bederatziak eta bost, Txemak alde eginez gero diruz eskas nabil, jakina, lehengo sakelatik orain bi etxe. Ama, nik hiru etxe ditut, gurea, amonarena eta aitaxorena, baina zuk bi bakarrik, aitaxoren etxea ez da zurea, ezta. Akabo Antxon ikastolan dago, akabo arratsaldera arte. Txema galduz gero, egunek ez dute erritmo normal bat. Goizaren eta arratsaldearen artean dagoen denbora, tarte bat da, zulo bat. Goizeko bederatzietatik arratsaldeko bostetara doan zubia. Goizeko zortzietan, ordulariko minutu baten intentsitatea hamar aldiz handiagoa da eguerdiko hamabietan baino, eztul batek trumoi batek baino soinu fuerteagoa egiten duen bezala, afariak bazkariak baino ehun aldiz garrantzi handiagoa du. Agian ez dut nahiko denbora pasatzen haurrarekin, agian horregatik saiatzen naiz batzuetan laburtasun hori intentsitatearekin ordaintzen. Amatxo, muxera, muxontzi. Ez zaie haurrei hainbeste muxu eman behar, mutil ustel bat izango dugu hainbeste mimorekin, maritxika bat. Egunean zortzi orduz, Antxon ahaztu, lurrak jan du nire bihotza. Egunean 16 orduz, lana eta nire bizitza propioa ahaztu. Gimnasia nekagarria: bat, bi, hiru, bihotza zabaldu. Lau, bost, sei, efikaziaren irribarrea. Zazpi, zortzi, bederatzi, kaixo, panpox, nola pasa da eguna. Lantokira joan baino lehen, gosaldutik beharko nuke, burua bizkortuko didan kafesne bero bat, eta komunera joan, erne gaur, hilekoa etorri ote den. A, a, a, maite dut ama. E, e, e, txikiak hemen daude. Ea oraingo honetan hilekoa etorri zaidan. Erosketak arratsalderako utziko ditut, hobe dut orain trankil gosaldutik, aparkatu eta gosaldutik, kafesne hutsa, gerria arinduko badut. Txema kafetegian topatuko banu, edo agian plazatik ateratzen. Ez dut uste bazkaria berak egingo duenik, ez da sekula arrautza bat frijitzeko gauza izan. Esango nioke: historia ez da bukatu, baina ahaztua dut zure lehengo usaina, parentesi bat ireki da, duzu, atea zabalik dago, krisketarik gabe, zure usaina ikasi behar dut, zure aurpegia galdutik ez badut. Esango nioke: zator, nire ileari lore usaina dario, nire bizitza zure sabelaren truke, nire askatasuna zure ipurdiaren goxoaren truke. Esango nioke: zer moduz, zuk bakarrik bizi nahi zenuen bizitza libre famatu hori, orain ere, lehengo lepotik burua, nire independentzia zurearen truke. Edo, hobe: txikia ikastolan utzi dut oraintxe, ikusiko bazenu bere gerria dantzatzen, eskuarekin agur egiten didanean, ez duzu horrelako semerik merezi, aitatasuna ez da gau batean zakila astinduz betiko irabazten den zer bait, zure meritu bakarra andrea ez izatea da, baina ez duzu usainik

utzi etxean, aitatxo bai, pixka bat tardon da. Edo hobe: kontrolak egun hauetan, e?, irakurri al duzu EGINek dakarren editoriala? Distantzia, aspaldiko, Txema, edo hobe, kaixo, distantzia eta hotzikara, zertan zabiltza, zer moduz. Kafesne beroaren karizia, ez nuke hainbeste pentsatu behar Txemarekin, total, beste gimnasia bat, mikatza dago kafesnea, azukre pixka bat botako banio. Edo hobe, kasurik egin ez, urrutitik eskuari pixka bat eragin, irribarre hotz eta distante bat, distantzia. Txema, gizonik gabe bizitzen ohitzen ari naizen eran, zure usaina ahaztu zaidan eran, maitasunaren aurrean besoak nola zabaldu ere ahaztu egiten ari zait. Zu zara, panpox, nire, munduko lagunik handiena. Ni, bizitza naiz, eta niregana hurbilduko denak bizirik iraungo du, beti.

590 Euskal Hizkuntza eta Literatura	Hizkuntza: Euskara	Proba egitearen data: 2021/06/20
--	------------------------------	--

Azal ezazu zer ekarpen egin dion obra horrek euskal literaturaren historiari, pasartearen ezaugarri formal nahiz edukizkoetatik abiatuz: testuingurua; baliabide literarioak, morfosintaktikoak eta semantikoak; muina edo gaia; narratzailearen ikuspuntua; ahots desberdinen parte-hartzea; tonua; egitura